



Espediente zk./Nº expediente: 2026SDBD0013	Erreg. data/Fecha reg: Erreg. zk. / Nº registro: 000000
Gaia/Asunto: 2026 Koldo Mitxelena Ikerketa Beka XVIII - XVIII Beca de Investigación Koldo Mitxelena 2026	
Eskatzailea/Solicitante: ERRETERIAKO UDALA	NAN(IFK)/DNI(NIF): P*****E
Kokalekua/Emplazamiento: ERRETERIA	

OINARRIAK

I.- DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA

Errenteriako Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearekin (UEU) lankidetzan, Errenteriarri buruzko ikerketa historikoa sustatzeko eta Koldo Mitxelena filologo errenteriarra omentzeko beka hau deitzen du.

Zehazki, 2026ko deialdi honetan, honako hau izango da ikerketa: Errenteriako migrazio prozesuen ikerketa XX eta XXI mendeetan zehar.

Beka honen helburua da, baita ere, euskaraz eta emakumeek eta/edo pertsonok trans egindako ikerketa bultzatuko duten ekintza positiboak ezartzea.

II.- HIZKUNTZA

Proiektua, haren jarraipen eta kontrolerako txostenak, azken ikerlana eta azken horren aurkezpena euskaraz egingo dira.

III.- ORIGINALTASUNA

Ikerketa-lanak originala eta argitaratu gabea izan behar du.

IV.- IRAUPENA

Bekaren iraupena gehienez 18 hilabetekoa izango da, beka esleitzen den egunetik hasita.

V.- ZENBATEKOA ETA ZEIN PARTIDAREN KARGURA EGINGO DEN.

Beka honen diru zenbatekoa 15.000 eurokoa izango da dagozkion urteko aurrekontuen 1.1830.480.01.463.00 (8965) partidaren kargura. Zenbateko horri dagokion PFEZ atxikiko zaio.

BASES

I.- OBJETO DE LA SUBVENCIÓN

El Ayuntamiento de Errenteria, en colaboración con la Universidad Vasca de Verano (UEU), convoca esta beca para fomentar la investigación histórica sobre Errenteria y homenajear al filólogo errenteriarra Koldo Mitxelena.

En concreto, en esta convocatoria de 2026, el tema de investigación será: Estudio de los procesos migratorios en Errenteria a lo largo de los siglos XX y XXI.

Es objeto de esta beca, también, establecer acciones positivas que impulsen la investigación llevada en euskera y por mujeres y/o personas trans.

II.- IDIOMA

El proyecto, los diversos informes para el seguimiento y control del mismo, el trabajo de investigación final y la presentación de este último se realizarán en euskera.

III.- ORIGINALIDAD

El trabajo de investigación debe ser original y no debe haberse publicado antes.

IV.- DURACIÓN

La duración máxima de la beca será de 18 meses, a contar desde el día que se adjudique la misma.

V.- CUANTÍA Y CRÉDITO PRESUPUESTARIO AL QUE SE IMPUTA.

La cuantía de la beca otorgada será de 15.000 euros con cargo a la partida 1 1830.480.01.463.00 (8965) de los presupuestos anuales correspondientes.

A dicho importe se le retendrá el IRPF que corresponda.



VI.- PERTSONA ONURADUNAK, DIRU-LAGUNTZA ESKATZEKO BALDINTZAK ETA HORIEK EGIAZTATZEKO ERA.

a) Pertsona onuradunak-eskatzaileak

Beka banaka edo taldeka eskatzen ahalko da (horretarako eratutako nortasun juridikorik gabeko pertsona fisikoen taldea). Bigarren kasuan, ikerketalanaren arduradun izango den zuzendari bat izendatu beharko da, Udalarekin solaskide izango dena.

b) Eskabideetarako baldintzak-arauak

Parte-hartzaileek nahi adina lan aurkez ditzakete.

Ez dute parte hartzerik izango aldez aurretik bekak edo ordainsariak jaso dituzten lanek.

Eskaera aurkezteak berarekin dakar oinarriak eta betebeharrak onartzea.

Interesdunek eskariak Erregistroan aurkeztuko dituzte, behar bezala beteta eta ondorengo agiri hauekin batera:

- ESKAERA ORRIA: dagokion inprimakia osaturik. Bertan partaide guztien datuak emango dira eta, taldeen kasuan, zuzendari arduraduna identifikatuko da.

Errenteriako Udalak, NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, deialdian parte hartzeko ondoko datuak egiaztatuko ditu. Interesdunak/ek aurka egiteaz gero, egiaztagiri hauek ere aurkeztu beharko ditu:

- Poliziaren zuzendaritza nagusia – nortasun datuak kontsultatzea eta egiaztatzea
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.
- Foru-Ogasuna. Zerga betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.

- PROIEKTUA: horrela izendatutako fitxeroan erregistratutako da gaiaren azalpena eta lana

VI.- PERSONAS BENEFICIARIAS, REQUISITOS PARA SOLICITAR LA SUBVENCIÓN Y FORMA DE ACREDITARLOS.

a) Personas beneficiarias-solicitantes.

La beca podrá solicitarse de forma individual o colectiva (grupo de personas físicas sin personalidad jurídica constituida al efecto). En el segundo caso, deberá designarse un/a director/a responsable del trabajo de investigación que actuará de interlocutor/a con el Ayuntamiento.

b) Requisitos-normas para las solicitudes

Las/los participantes pueden presentar tantos trabajos como quieran.

No podrán participar trabajos que hayan sido objeto de becas o premios previos.

La presentación de la solicitud implica la aceptación de las bases y de las obligaciones contenidas en las mismas.

Las personas interesadas presentarán en el Registro las solicitudes debidamente cumplimentadas y acompañadas de la siguiente documentación:

- HOJA DE SOLICITUD de la beca Koldo Mitxelena debidamente cumplimentada. En ella se facilitarán los datos de todas las personas participantes y, en el caso de los equipos, se identificará al/ a la director/a responsable.

El Ayuntamiento de Errenteria, a través de la plataforma de intermediación de datos NISAE, comprobará los siguientes datos para participar en la convocatoria. En caso de oposición, la persona interesada deberá presentar, asimismo, la documentación acreditativa de dichas circunstancias.

- Dirección general de la policía. Consulta y verificación de identidad
- Tesorería general de la Seguridad Social. Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social.
- Diputación Foral de Gipuzkoa. Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias.

- PROYECTO: en el fichero así designado se registrará la exposición del tema y el



zelan burutuko litzatekeen azaltzen duen proiektua. Proiektua ahalik eta gehien zehaztuko da eta 15 orrialdekoa izango da gehienez, datu pertsonalik txertatu gabe. Ondoko atalak jasoko ditu:

- Lanaren ikerketa esparrua.
- Aurrekariak eta gaiaren egungo egoera.
- Helburuak
- Metodologia
- Kronograma
- Aurreikusitako helburuak eta horien interesa.
- Bestelako finantzabideak
 - CURRICULUM VITAE, lantaldeen kasuan, taldeko kide bakoitzeko bat. Merezimendu horiek egiaztatzen dituzten agiriak ziurtagiriarekin batera aurkeztuko dira.
 - Parte-hartzaile guztien NANA eta (hala badagokio) sexu-aldaketarako erregistroaren ziurtagiria edo, horren ezean, interesdunaren zinpeko aitortpena.
 - Taldekako eskaeren kasuan, GAUZATZEKO KONPROMISOAREN ORRIA, behar bezala beteta, onuradun bakoitzari aplikatu beharreko konpromiso eta zenbatekoekin.
 - Kide guztien kontu korrentearen titulartasunaren egiaztatzea.

proyecto explicativo de cómo se llevaría a cabo el trabajo. El proyecto se concretará al máximo y tendrá una extensión máxima de 15 páginas, sin incluir datos personales. Contendrá los siguientes apartados:

- Ámbito de investigación del trabajo.
- Antecedentes y situación actual del asunto.
- Objetivos.
- Metodología
- Cronograma
- Resultados previstos e interés de los mismos.
- Otros medios de financiación
 - CURRICULUM VITAE, en el caso de grupos de trabajo, uno por cada componente del grupo. La documentación acreditativa de dichos méritos será aportada junto al mismo.
 - DNI de todas las personas participantes y (si corresponde) certificado del registro para el cambio de sexo o, a falta de eso, declaración jurada de la persona interesada.
 - En caso de solicitudes grupales, HOJA DE COMPROMISO DE EJECUCIÓN debidamente cumplimentada, con los compromisos e importes a aplicar a cada beneficiaria/o.
 - Certificación acreditativa de la titularidad de la cuenta corriente de todos los miembros.

VII.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA.

Epea

Eskaerak eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea 2026ko irailaren 1etik urriaren 31ra arte egongo da zabalik, biak barne.

Lekua

Telematikoki (ziurtagiri elektronikoarekin) Errenteriako Udalaren webgunean <https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/>

Aurrez aurreko eskabidea ere onartzen da. Kasu horretan, dokumentazioa Errenteriako ZU! Zure Udala zerbitzuan (Errenteriako Udala, beheko

VII.- PLAZO Y LUGAR PARA LA PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

Plazo

El plazo de presentación de las solicitudes y el resto de la documentación es del 1 de septiembre al 31 de octubre de 2026, ambos inclusive.

Lugar

Telemáticamente (con certificado electrónico) en la sede web del Ayuntamiento de Errenteria <https://errenteria.eus/es/zu/subvenciones/>

También se admite la vía presencial. En ese caso, la documentación se presentará en el ZU! Zure Udala (Ayuntamiento de Errenteria, planta baja, Herriko



solairua, Herriko plaza z/g) aurkeztuko da. Era berean, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko, 39/2015 Legeak, 16.4 artikuluan izendatzen dituen leku eta erregistroetan ere aurkez daiteke.

Postetxean, EBB (Erregistro Birtualerako Bulegoa) zerbitzuan.

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo oinarri hauetan eskatutako baldintzak ez dituela betetzen ikusiz gero, hamar eguneko epean konpondu edo beharrezko agiriak ekar ditzala eskatuko zaio interesdunari. Hala egingo ez balu eskaeran atzera egin duela ulertuko da, betiere aldez aurretik ebazpena emanda, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

VIII.- ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

Eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, epaimahaiak informazio osagarria eskatu dezake edo/eta hautagai batzuk proiektua defendatzera dei ditzake.

Horretaz gain, epaimahaiak aurkeztutako gaien inguruko pertsona adituen laguntza eta aholkularitza eska dezake.

Puntu gehien duenari esleituko zaio beka eta horrek hartuko ez balu, zerrendako hurrengoari proposatuko zaio.

Epaimahaiak eskabide guztien puntuazio orokorren zerrenda egingo du. Beka Errenteriako Artxibo eta Argitalpenak zinegotziak adjudikatuko du, epaimahaiaren proposamena jaso ondoren. Erabakia aurkeztu diren guztiei jakinaraziko zaie

Proposamena hamargarren ataleko balorazio-irizpideetan oinarrituko da. Horren arabera, eskatzaile bakoitzaren puntuazioa epaimahaiko kide bakoitzak emandako puntuazioaren batura izango da. Epaimahaiko kide guztiek dute hitza eta botoa.

Bekaren onuradunak esleipenaren jakinarazpena jaso eta hamar egun baliokideko epean espresuki

plaza s/n). Asimismo, podran presentarse en los registros de las Administraciones Públicas señaladas en el art. 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En Correos, en el servicio ORBE (Oficina de Registro Virtual).

En caso de no presentar alguno de los documentos y justificaciones que se señalan en el apartado anterior, se concederá a la persona interesada un plazo de 10 días a los efectos de subsanar o completar la documentación aportada. Si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

VIII.- PROCEDIMIENTO PARA LA ADJUDICACIÓN

Una vez analizada la documentación presentada por las/os solicitantes, el tribunal puede solicitar información complementaria y/o convocar a algunas/os candidatas/os a defender el proyecto.

Además, el tribunal podrá recabar la colaboración y asesoramiento de personas expertas en los temas presentados.

La beca se adjudicará a quien tenga mayor puntuación y, en caso de no aceptarla, se propondrá a la / al siguiente de la lista.

El tribunal elaborará la lista de las puntuaciones globales de todas las solicitudes. La adjudicación de la beca correrá a cargo del concejal de Archivos y Publicaciones de Errenteria, a propuesta del tribunal. La decisión se comunicará a todas las personas que se hayan presentado.

La propuesta se basará en los criterios de valoración del décimo apartado según el cual, la puntuación de cada solicitante será la suma de la puntuación otorgada por cada miembro del tribunal. Todos los miembros del tribunal tienen voz y voto.

Si en el plazo de diez días hábiles tras la fecha de recepción de la notificación de adjudicación, la



idatziz uko egiten ez badio, ulertuko da beka eta oinarrietako betebeharrak ontzat ematen dituela.

persona beneficiaria de la beca no renunciara expresamente por escrito a la misma, se entenderá que acata las obligaciones de la beca y sus bases.

IX.- EPAIMAHAIA

Epaimahaia parekidea izango da edo genero ikuspegia behar bezala txertatua dagoela bermatu beharko da. Honako hauek osatuko dute epaimahaia:

- Batzordeburua:

Artxibo eta Argitalpenen alorreko zinegotzia edo berak delegatutako udalkidea.

- Batzordekideak:

Hiru aditu, Udalaren eta Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) artean adostuak, aurtengo edizioaren ikergaiaren alorrean esperientzia egiaztatua dutenak.

- Idazkaria:

Errenteriako Udal Artxiboko ordezkari bat.

Horiez gain, epaimahaiak hala erabakiko balu, aurkeztutako gaien inguruko pertsona adituen laguntza eta aholkularitza eska dezake epaimahaiak.

Epaimahaia zein pertsonen osatzen duten erabaki bezain laster, haien izenak Udalaren webgunean argitaratuko dira, Koldo Mitxelena Ikerketa Beka ren atal berean.

X.- BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Gehieneko puntuazioa 100 puntutakoa izango da. Honako alderdi hauek hartuko dira aukeraketarako irizpide nagusitzat:

- **Ikerketa proiektua: 60 puntu arte, horrela banaturik:**
 - Interesa, zuzentasuna, balio zientifikoa eta originaltasuna: 10 puntu.
 - Ikerketa-lanaren testuingurua eta proiektuaren garapen-maila: udalerraren ezagutza proiektuan islatzea: 20 puntu.

IX.- TRIBUNAL

La composición del tribunal será paritaria o se garantizará que en la misma se ha incorporado la perspectiva de género. El tribunal estará formado por las siguientes personas:

- Presidente:

El concejal de Archivo y Publicaciones o persona en la que delegue.

- Vocales:

Tres personas expertas, consensuadas entre Ayuntamiento y Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), con experiencia contrastada en el ámbito de la investigación de esta edición.

- Secretario/a:

Un/a representante del Archivo municipal de Errenteria.

Además, el tribunal tiene la facultad de solicitar colaboración y asesoramiento de personas expertas en el ámbito al que se refiere la beca, siempre que lo considere oportuno.

En cuanto se decida qué personas componen el tribunal, sus nombres se publicarán en la página web del Ayuntamiento, en el mismo apartado de la Beca de Investigación Koldo Mitxelena.

X.- CRITERIOS DE VALORACIÓN

La puntuación máxima será de 100 puntos. Como criterios principales de selección se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:

- **Proyecto de investigación: hasta 60 puntos divididos en:**
 - Interés, corrección, valor científico y originalidad: 10 puntos.
 - Contextualización del trabajo de investigación y grado de desarrollo del proyecto: plasmación del conocimiento del municipio en el proyecto: 20 puntos.



- Proiektuaren argitasuna eta bideragarritasuna, helburuak, metodologia eta kronograma barne: 20 puntu.
- Genero-ikuspegia: genero-berdintasunaren eta disidentzia sexualen inguruan ikertu beharreko irizpideak edo azterketan garatu beharreko edukiak: 10 puntu.
- **Curriculuma Ikerketa-gaiarekin eta/edo udalerriaren ezagutzarekin zerikusia duen ibilbide akademikoa: 20 puntu gehienez, horrela banatuak:**
 - Ibilbide akademikoa: 15 puntu arte.
 - Gradu-Lizentziatura: 10 puntu
 - Masterra eta/edo doktoregoa: 10 puntu
 - Genero ikuspegiko prestakuntza: 5 puntu gehienez (gutxienez 10 orduko ikastaroetarako, 0.025 puntu orduko)
 - Ibilbide profesionala: 5 puntu arte.
 - Bestelako beka edo ikerketarako diru-laguntzaga bakoitzeko 2 puntu.
 - Argitalpenak: 1 puntu artikulua edo liburu-kapitulu bakoitzeko, 2 monografia bakoitzeko
- **Emakumeek edo pertsona transek egindako ikerketa: 10 puntu bitarte, honela banatuta:**
 - Emakumez edota trans pertsonaz soilik osatutako lan taldeak: 10 puntu
 - Parte-hartzaileen %60, gutxienez, emakumeak edota trans pertsonak dituzten lantaldeak: 5 puntu.
- **Euskararen ezagutza maila: 10 puntu arte, hurrengoaren arabera:**
 - *Parte-hartzailearen batek C2 maila duen lantaldeak: 5 puntu*
 - *EGA titulua edo baliokidea* duten pertsonaz osatutako lan taldeak: 10*
- Claridad y viabilidad del proyecto, incluyendo objetivos, metodología y cronograma: 20 puntos.
- Perspectiva de género: criterios a investigar o contenidos a desarrollar en el estudio relativos a la igualdad de género y disidencias sexuales: 10 puntos.
- **Currículo con trayectoria académica relacionada con el tema de investigación y/o el conocimiento del municipio: hasta 20 puntos repartidos así:**
 - Trayectoria académica: hasta 15 puntos.
 - Grado-Licenciatura: 10 puntos
 - Máster y/o doctorado: 10 puntos
 - Formación en perspectiva de género: hasta 5 puntos (para cursos de mínimo 10 horas, a 0.025 puntos/hora)
 - Trayectoria profesional: hasta 5 puntos.
 - Por cada otra beca o subvención de investigación: 2 puntos.
 - Publicaciones: 1 punto por artículo o capítulo de libro, 2 por monografía.
- **Investigación llevada a cabo por mujeres o personas trans: hasta 10 puntos repartidos del siguiente modo:**
 - Grupos de trabajo compuestos exclusivamente por mujeres y/o personas trans: 10 puntos
 - Grupos de trabajo con al menos el 60 % de participantes mujeres y/o personas trans: 5 puntos.
- **Nivel de conocimiento del euskera: hasta 10 puntos, en base a:**
 - *Grupos de trabajo en los que alguna de las personas participantes cuente con el C2: 5 puntos*
 - *Grupos de trabajo compuestos por personas todas ellas poseedoras del*



puntu

- *Gutxienez % 60ko parte-hartzea duten EGA titulua edo baliokidea duten lantaldeak*: 5 puntu.*

*(kontuan izan, 47/2012 DEKRETUA, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko dena; 297/2010 DEKRETUA, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzen dituen).

título o certificado EGA o equivalente: 10 puntos*

- *Grupos de trabajo con al menos el 60 % de participantes con título o certificado EGA o equivalente*: 5 puntos.*

* (téngase en cuenta el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de las enseñanzas oficiales cursadas en euskera y de exención de la acreditación del nivel de euskera mediante títulos y certificados lingüísticos; el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas).

XI.- BEKADUNEN BETEBEHARRAK

Lanaren garapenari buruz (egindakoa eta egiteko dagoena), aurkeztutako proiektuaren arabera txosten bat bidaltzea bekaren lehen 9 hilabeteak igarotakoan.

Errenteriako Udalaren eta Udako Euskal Unibertsitatearen esku egotea egindako lanen ohar, zirriborro, aurrerapen eta emaitzak.

Aurreikusitako planaren edo ikertaldearen osaketaren aldaketen berri ematea. Halakorik ezingo da egin Errenteriako Udalaren baimenik gabe.

Bekaren 18 hilabeteak igarotakoan memoria (ikerlanaren beraren azken erredakzioa) aurkeztea.

Lanaren luzerak 200 eta 400 orrialde artekoa izan beharko du, orrialdeko 30 lerroz eta lerroko 60 idazki zeinuz, grafikoak, argazkiak eta antzekoak dituzten orrialdeen kasuan izan ezik. Horrek, gutxi gorabehera, 250-300 hitz (1.800 karaktere) esan nahi du orri bakoitzeko.

Gehigarriek ez dute kontabilizatuko eskatutako gutxieneko orrialde kopurua betetzeko. Idazketak komunikazio-funtzioa, kohesio sintaktikoa, koherentzia eta zuzentasun formala beteko ditu.

Irudiak, marrazkiak, argazkiak eta abar, amaierako testuan sartuko diren arren, aparteko fitxategietan

XI.- OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS BECADAS

Presentar un informe a los 9 meses de la concesión de la beca en el cual se refleje el desarrollo del trabajo de investigación (trabajo realizado hasta la fecha y lo que falta para su finalización).

Facilitar el acceso del Ayuntamiento de Errenteria y la UEU a las notas, borradores, trabajos previos y resultados del trabajo de investigación.

Comunicar cualquier cambio en el plan previsto o en la composición del equipo de trabajo. No se podrá realizar ningún cambio de dicha índole sin el permiso del Ayuntamiento de Errenteria.

Presentar la memoria final a los 18 meses de la concesión de la beca (redacción final del trabajo de investigación).

La extensión de la memoria final deberá ser entre 200 y 400 páginas de texto con 30 líneas por página y 60 caracteres por línea, excepto en páginas con fotografías y gráficos. Eso equivale, aproximadamente, a 250-300 palabras (1.800 caracteres) por página.

Los apéndices no contabilizarán para cumplir con el mínimo de páginas exigido. La redacción cumplirá con la función comunicativa, la cohesión sintáctica, la coherencia y la corrección formal.

Las imágenes, dibujos, fotografías etc., además de ser incluidas en la memoria final, se entregarán en un



entregatu beharko dira, gutxienez hazbeteko 300 pixeleko bereizmenarekin, kalitate hori beharrezkoa baita inprimategian inprimatu ahal izateko. Bekaduna aurkeztutako ilustrazioen ustiapen eskubideen egilea/ titularra izango da, baita erator litezkeen irudi eskubideena ere, edota argitaratzeko beharrezkoak diren baimenak izango ditu. Ez dira testutzat hartuko.

Egileak 30 lerro inguruko laburpena eta edukiaren berri ematen duten deskribatzaileak erantsiko ditu euskaraz gain, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez.

Testualak ez diren lanentzako mugak ondoren ezarriko dira.

Egileak bekarako lana bukatutakoan, jendaurrean aurkeztu beharko du, horretarako Errenteriako Udala, UEU eta lanaren egilearen artean eguna eta ordua adostuta.

Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea betetzen ez bada edo epaimahaiaren iritziz nahikoa kaliterik ez badu, justifikazio edo gairiditu ezinezko arrazoirik gabe, oinarri hauen XIII. puntuari jasotako penalizazioak ezarriko zaizkio irabazleari. Epaimahaiak erabakiko du emandako arrazoiak nahikoak diren ala ez.

XII.- BEKA (DIRU-LAGUNTZA) ORDAINTZEA

Ordainketa modu honetan egingo da, izapide administratiboak burutu ondoren eta, talde eskaeraren kasuan, aurkeztutako Pertsona fisikoaren taldeentzako gauzatze-konpromisoaren arabera:

Kopuru osoaren %30a, beka ematen den une berean, aurreordainketa moduan.

Kopuru osoaren %30a, beka ematen zaionetik 9 hilabetera, horretarako egindako lanaren eta egingo duenaren azalpen-txostena (XI. oinarriaren arabera) aurkeztu eta epaimahaiak ontzat eman ondoren.

Gainontzeko %40a, bekaren bukaeran, lana aurkeztu eta epaimahaiak ontzat eman ondoren.

fichero aparte, con al menos 300 píxeles de resolución, calidad mínima para que puedan ser impresas en imprenta. La persona becada será autor o autora o titular de los derechos de explotación de las ilustraciones, así como de los derechos que de las mismas se puedan derivar, o dispondrá de los permisos necesarios para su publicación. No contabilizarán como texto.

El/la autor/a de la memoria deberá incluir un resumen de 30 líneas que recoja el contenido y los descriptores de la memoria, en euskera, castellano, francés e inglés.

Los límites de los trabajos no textuales se establecerán a posteriori.

El/la autor/a al finalizar el proyecto hará una presentación pública, para la cual acordará la fecha y la hora con el Ayuntamiento de Errenteria y la UEU.

El incumplimiento del plazo final de entrega del informe de desarrollo del estudio o de la memoria final o la falta de calidad suficiente a juicio del tribunal, sin causa justificada o excusable, dará lugar a la imposición al/ a la ganador/a de las penalizaciones previstas en el punto XIII de estas bases. El tribunal decidirá sobre la suficiencia o no de los motivos alegados.

XII.- ABONO DE LA BECA (SUBVENCIÓN).

El pago se realizará de la siguiente forma, una vez realizados los trámites administrativos, y en función al Compromiso de ejecución para agrupaciones de personas físicas presentado en caso de solicitud grupal:

El 30% del total, en el mismo momento de la concesión de la beca, en forma de prepago.

El 30% del total, en el plazo de 9 meses desde la concesión de la beca, previa presentación y aprobación por el tribunal del informe explicativo del trabajo realizado y de lo que se va a realizar a tal efecto (según la base XI).

El 40% restante, al final de la beca, tras la presentación del trabajo y el visto bueno del tribunal.



Lana amaituko ez balitz, oinarri hauetako XIII. puntua ezarriko da.

En caso de no finalizar el trabajo, se aplicará el punto XIII de estas bases.

XIII.- UKO EGITEA ETA ZIGORRA

Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea bukatu baino lehen eta Udalak aurretiaz errekeritu gabe, bekadunak / talde bekadunak bere borondatez uko egiten badu, ordura arte jasotako zenbatekoa eta dagozkion berandutze interesak itzuli beharko ditu. Udalak berandutze interesak kalkulatuko ditu Diru-laguntzen Lege Orokorraren 38. artikuluan jasotakoari jarraituta.

Ikerlanaren garapenaren lehengo txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea bukatuta Udalak errekeritu ondoren bekari uko egiten denean, bekadunak ordura arte jasotako zenbatekoa itzultzeaz eta dagozkion berandutze interesak ordaintzeaz gain, isun bati aurre egin beharko dio, Diru-laguntzei buruzko Legeak arautzen duen bezala.

XIV.- ARGITALPENAK ETA JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaileak dira deialdi honen esparruan garatzen dituzten proiektuen jatorrizkotasunaren eta egiletzaren erantzule, eta, alde horretatik, bermatu egiten dute Errenteriako Udalak erabili ditzan, eta berariaz salbuesten dute udala zuzenean edo zeharka kalte eta/edo galerengatik sortu litezkeen erantzukizun guztietatik, haien aldetik berme hori betetzen ez bada.

Errenteriako Udalak beretzat gordetzen du bekaren xede den lana eraldatzeko, erreproduzitzeko, banatzeko eta komunikatzeko eskubideak egileekin partekatzeko ahalmena, zati batean edo lan osoan, egoki deritzon, bere kabuz edo akordio bidez, UEUK lehentasuna izanik. Egilea edo egileak aipatu beharko ditu beti.

Udalak bere webgunean argitaratu ahal izango du, edo egoki iritzitako komunikazio-kanaletan zabaldu, udal horren beka duen lan gisa.

XIII.- RENUNCIA Y SANCIÓN

En caso de que la persona / el grupo becada/o renunciara de forma voluntaria, antes de la finalización del plazo de entrega del informe o de la memoria final y sin previo requerimiento del Ayuntamiento, deberá reintegrar las cantidades percibidas y los intereses de demora. El Ayuntamiento calculará los intereses de demora de acuerdo con lo previsto en el artículo 38 de la Ley General de Subvenciones.

Cuando la renuncia a la beca se produzca tras requerimiento del Ayuntamiento una vez finalizado el plazo de presentación del primer informe o de la memoria final, la persona o el equipo becada/o deberá, además de reintegrar las cantidades percibidas y los intereses de demora correspondientes, hacer frente a una multa, tal y como regula la Ley de Subvenciones.

XIV.- PUBLICACIONES Y PROPIEDAD INTELECTUAL

Las personas participantes responden de la originalidad y autoría de los proyectos que desarrollen en el marco de esta convocatoria, y en este sentido, garantizan el uso por parte del Ayuntamiento de Errenteria y le eximen expresamente de cualquier responsabilidad por los daños y/o perjuicios que directa o indirectamente, el incumplimiento por su parte de esta garantía pudiera ocasionar.

El Ayuntamiento de Errenteria se reserva la potestad de compartir con las/os autoras/es los derechos de transformación, reproducción, distribución y comunicación del trabajo objeto de la beca parcialmente o en su totalidad cuando lo crea oportuno, por su cuenta o en colaboración mediante acuerdo, teniendo prioridad la UEU. Deberá mencionar siempre al autor/a o autores/as.

El Ayuntamiento podrá publicarlo en su web o difundirlo en los canales de comunicación que estime oportunos como un trabajo becado por dicho



Pertsona bakarra izanik, obra editatzen bada, egileak hamar ale dohainik izateko eskubidea izango du. Talde bat izanik, kopuru horrekiko zenbaki proportzionala ezarriko da, taldea osatzen duten ikertzaileen kopuruaren arabera.

Eskatzaileek ezin izango dute alde aurretik inolako jakinarazpenik egin Errenteriako Udalaren idatzizko baimenik gabe, harik eta erakunde horrek argitaratu arte.

Proiektuaren emaitzen argitalpenetan eta aurkezpenetan, berariaz jaso beharko da Errenteriako Udalak emandako laguntza.

Ustiapen-modua edozein dela ere, ezingo da inoiz irabazi asmoz egin. Izan ere, argitalpena eskuragarri egongo da sarbide irekian, Aitortu-Ez Komertziala-Partekatu Berdin 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC-SA 4.0)

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/de-ed.eu>. Horren arabera:

- Aitortza: sarbide libreko argitalpen hau erabiltzean datu hauek adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak, argitalpenaren jatorrizko izenburua, argitalpenaren identifikazio-zenbakia (ISBN/ISSN) eta argitalpenaren lizentzia-mota.
- Ez komertziala: argitalpen honen edukia ezin da helburu komertzialetarako erabili.
- Lizentzia berarekin partekatzea: argitalpen hau aldatzen edo eraldatzen bada, edo obra eratorri bat sortzen bada, sortutako obra Creative Commons lizentzian banatu beharko da.

XV.- GORABEHERAK

Deialdia honako oinarri hauek arautzen dute, eta bertan arautzen ez den guztirako [Errenteriako Udalaren dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza \(2015eko abuztuaren 10eko GAO\)](#), azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra, [uztailaren 21eko 887/2006 Errege](#)

Ayuntamiento.

Si la obra fuera editada, tratándose de una sola persona, la autora / el autor tendrá derecho a disponer de diez ejemplares de forma gratuita. Siendo un equipo, se establecerá un número proporcional a esa cifra, en función del número de investigadoras/es que lo integren.

Las/os solicitantes no podrán realizar comunicaciones previas de ningún tipo sin permiso escrito del Ayuntamiento de Errenteria hasta llevarse a cabo la publicación por dicha institución.

En las publicaciones y presentaciones de los resultados del proyecto deberá constar de forma explícita la ayuda recibida por el Ayuntamiento de Errenteria.

Cualquiera que sea la forma de explotación, nunca podrá hacerse con ánimo de lucro ya que la publicación estará disponible en acceso abierto bajo la licencia Atribución/Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 4.0 Internacional (CC BY-NC-SA 4.0 es)

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/de-ed.es> según la cual:

- Reconocimiento: cualquier uso que se haga de esta publicación disponible en libre acceso deberá incluir los siguientes datos: nombre y apellidos del/de la autor/a, título original de la publicación, número identificativo de la misma (ISBN/ISSN) y la mención al tipo de licencia abierta bajo la que se publica.
- No comercial: el contenido de esta publicación no puede utilizarse para fines comerciales.
- Compartir bajo la misma licencia: si altera o transforma la presente publicación, o genera una obra derivada, deberá distribuir la obra generada bajo una licencia Creative Commons idéntica a ésta.

XV.- INTERPRETACIÓN

La convocatoria se regirá por las presentes bases y, en lo no regulado en las mismas, por la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria (BOG del 10 de agosto de 2015), la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones, Real



[Dekretua, aipatu dekretua garatzen duen Araudia,](#) 2025eko azaroaren 19ko 3249 zenbakiko Alkatetza Dekretuaren bidez, 2026. urte naturalean eta 2026-2027 ikasturtean Errenteriako Udalak diru-laguntzak emateko oinarri orokorrak eta aplikagarria den gainerako legedi osagarria hartuko dira kontuan.

Errenteriako Udalak eta Udako Euskal Unibertsitateak betebeharrak hauetan aurreikusi gabeko gorabeherak konpondu ahal izango dituzte. Era berean, beka indarrak gabe utzi ahal izango dute, onuradunak betebeharrak hauetako eginbeharrekoak betetzeke lagako balitu(zte).

XVI.- IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Beka eskaera aurkeztean, oinarri honetan ezarritako baldintza guztiak bete egiten dituela eta oinarriek diotena goitik behera onartzen dituela aitortzen du eskatzaileak. Era berean, adierazten du, eskaeran jasotako datu pertsonal horiek bere baietzarekin jaso direla eta onartu egiten duela datu horiei tratamendu automatizatua ematea eta Errenteriako Udalarenak diren eta behar bezala baimenduta dauden fitxategietan jasotzea; eta baimena ematen du datu horiek udal kudeaketan bakarrik erabili daitezen, gure pribatasun politikaren arabera:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/home.do?De=EU06712216>
Hala ere, datu pertsonalak babesteko araudi orokorrean aurreikusitako kasuetan, beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei datuok helarazi edo laga ahal izango zaizkie.

Azkenik, beste pertsona fisiko batzuen datuak helarazten baldin badituzu, pertsona horiei aurreko guztiaren berri eman beharko diezu.

Errenterian, 2026ko abuztuaren 12a

Decreto 887/2006, de 21 de julio, Reglamento que lo desarrolla, Decreto de Alcaldía nº 3249 de 19 de noviembre de 2025 Bases generales para la concesión de subvenciones por el Ayuntamiento de Errenteria durante al año natural 2026 y el curso 2026-2027. y demás legislación complementaria aplicable.

El Ayuntamiento de Errenteria y la Universidad Vasca de Verano (UEU) podrán resolver cualquier duda que pudiera surgir de la interpretación de las presentes bases. Igualmente se acordará la rescisión de la beca si hubiera incumplimiento por parte de la/s persona/s beneficiaria/s.

XVI.- PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

Con la presentación de la solicitud de beca, el/la solicitante declara que reúne todos los requisitos establecidos en estas bases y que las acepta íntegramente. Así mismo, manifiesta que los Datos Personales contenidos en la instancia son recogidos bajo su consentimiento y que acepta que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado e incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados del Ayuntamiento de Errenteria y que autoriza a que el uso de dichos datos se restrinja exclusivamente a la gestión municipal según nuestra política de privacidad:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/home.do?De=CA06712216>, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en el reglamento general de Protección de Datos de Carácter Personal.

Por último, si facilita datos personales de otras personas físicas deberá, previamente informarles de todo lo anterior.

En Errenteria, a 12 de agosto de 2026



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2026SDBD0013-OINARRIAK DIRULAGUNTZAK/BASES SUBVENCIONES (ERRENTERIA